

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Kontzejuen finantzaketa-funtsaren oinarri arautzaileen aldaketa behin betiko onartzea

Hasierako onespeneren iragarkia 2025eko martxoaren 7ko ALHAOn argitaratu zen (27 zk.), eta erreferentziako espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, osorik argitaratzen da, indarrean sar dadin.

ARRATZUA-UBARRUNDIA UDALERRIKO KONTZEJUAK GASTU OROKORRETARAKO FINANTZATZEKO FUNTSA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Oinarritzea

Arratzua-Ubarrundiako udalerrriak nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten hamar kontzeju ditu bere udalerrian. Kontzeju horiek beren jurisdikzioa baliatzen dute lurralde barruan.

Kontzeju horiek Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 7. artikuluan jasotako zenbait eskumen dituzte, hala nola:

Kontzejuek, beren eskumenak emateko, martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 35. artikuluan ezarritako zenbait baliabide dituzte.

Gainera, orain arte, kontzejuek hainbat dirulaguntza jaso dituzte Arratzua-Ubarrundiako Udaletik, gastu arruntak eta inbertsioak finantzatzeko, kontzejuei laguntzak ematea arautzen duen ordenantza espezifikoan jasotakoak.

Hala ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2.2. artikuluan zehazten denez, ez daude lege horren aplikazio-eremuan sartuta administrazio publikoen arteko diru-ekarpenak, xede duten administrazioaren jarduera oro har finantzatzeko.

Azaldutakoagatik, udal honek kontzejuei gastu orokorretarako egiten zaizkien ekarpenak eta obra edo inbertsioetarako ematen diren dirulaguntzak bereizi nahi ditu, horietako bakoitza bere araudi partikularrean jasota.

2. artikulua. Helburua

Ordenantza honen xedea da Arratzua-Ubarrundiako udalerriko kontzejuen parte-hartzea arautu behar duten irizpideak eta arauak ezartzea, udalak kontzeju horien jardueraren kostuak ordaintzeko urtero bideratzen duen aurrekontuan.

3. artikulua. Udalerriko kontzejuak

Arratzua-Ubarrundia udalerria osatzen duten kontzejuak, eta ekarpen honetan parte hartuko dutenak, honakoak dira:

- Arroiabeko kontzejua.
- Arzubiagako kontzejua.
- Betolazako kontzejua.
- Duranako kontzejua.
- Landa kontzejua.

- Lukuko kontzejua.
- Mendibilgo kontzejua.
- Uribarri-Ganboako kontzejua.
- Ziriano kontzejua.
- Zurbako kontzejua.

4. artikulua. Ekarpenen izaera

Ordenantza hau aplikatzearen ondorioz udalerriko kontzejuek jasotzen dituzten kopuruak bakoitzaren ogasunaren diru-sarrera arruntzat hartuko dira, eta horiek arautzen dituen araudiaren arabera dagozkien zerbitzuak mantendu eta emateko erabiliko dira, bai eta kontzejua bera antolatzeke eta kudeatzeko gastu arruntak finantzatzeko eta edozein jarduera egiteko ere.

5. artikulua. Ekarpenen zenbatekoa guztira

Ekarpenen zenbateko osoa, udal-aurrekontuetan urtero jasoko dena, 943.434.000 “Kontzejuen gastu orokorrak” aurrekontu-partidan, hasieran edo legez onartutako aurrekontu-aldaketen ondorioz, 190.000,00 eurokoa izango da.

6. artikulua. Kontzeju bakoitzerako ekarpenen kalkulua

6.1 Ekarpenen kalkulua, ondorengoa kontuan hartuta egin da:

2025eko urtarrilaren 1ean, biztanle-kopurua 1.057koa da, eta Langara Ganboa herrikoak kenduta, honela banatzen dira:

Arroiabe	94
Arzubiaga	15
Betolaza	25
Ziriano	19
Durana	393
Landa	37
Luko	56
Mendibil	43
U-Gamboa	81
Zurbao	281

Etxebizitzei dagokienez, EUSTATEk argitaratutako datua lortu da, 2023ko urtarrilaren 1ekoa, eta 2023ko eta 2024ko altak eta bajak gehitu edo murriztu zaizkio, honako datu hauekin:

Arroiabe	56
Arzubiaga	11
Betolaza	14
Ziriano	7
Durana	176
Landa	21
Luko	31
Mendibil	25
U-Gamboa	63
Zurbano	127

6.2 Kontzeju bakoitzaren diru-sarrerak kopurua:

HERRIA	ETXE KOP.	€/ETXEBIZITZAKO	BIZTANLE KOP.	€/BIZTANLEKO	FINKOA	GUZTIRA
		125,235 €		90,996 €	2.850,00 €	
Arroiabe	56	7.013,160 €	94	8.553,624 €	2.850,00 €	18.416,78 €
Arzubiaga	11	1.377,585 €	15	1.364,940 €	2.850,00 €	5.592,53 €
Betolaza	14	1.753,290 €	25	2.274,900 €	2.850,00 €	6.878,19 €
Durana	176	22.041,360 €	393	35.761,428 €	2.850,00 €	60.652,79 €
Landa	21	2.629,935 €	37	3.366,852 €	2.850,00 €	8.846,79 €
Luko	31	3.882,285 €	56	5.095,776 €	2.850,00 €	11.828,06 €
Mendibil	25	3.130,875 €	43	3.912,828 €	2.850,00 €	9.893,70 €
Ullibarri	63	7.889,805 €	81	7.370,676 €	2.850,00 €	18.110,48 €
Ziriano	7	876,645 €	19	1.728,924 €	2.850,00 €	5.455,57 €
Zurbano	127	15.904,845 €	281	25.569,876 €	2.850,00 €	44.324,72 €
	531	66.499,785 €	1044	94.999,824 €	28.500,00 €	189.999,61 €

Zenbateko horiek 2020tik aurrerako urteko KPlaren gehikuntzak, urte horretan abiarazitako 125.000,00 euroko hasierako zenbatekoari aplikatuta, 190.000,00 euro gainditzen ez dituzten bitartean aplikatuko dira. Une horretan gaia berriro aztertuko da, baina horrek ez du esan nahi udalbatzak ordenantza berriro aldatuko duenik.

7. artikulua. Ekarpinak ordaintzeko modua

Ekarpen horiek urte bakoitzeko azken hiruhilekoan ordainduko dira.

8. artikulua. Kontzejuen betebeharrak

Kontzejuak beren kontzejuaren urteko kontuak (gastuak, sarrerak eta kutxako izakinak) aurkeztu beharko dituzte, behar bezala onartuta eta Arabako Foru Aldundiak eskatutako formatuan, kontuak aipatzen diren urtearen hurrengo urteko maiatzaren 1a baino lehen, edo erregelamendu bidez ezartzen den egunean. Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, ez da ekarpenari dagokion zenbatekoa ordainduko.

Era berean, kontzejuak egunean izan beharko ditu udalarekin dituen zorrak. Bestela, ekarpen horren kontura konpentsatuko dira.

Azken xedapena

Ordenantza hau, behin betiko onartu ondoren, osorik argitaratuko da ALHAOn, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta hamabost (15) egun balioduneko epea igarotakoan sartuko da indarrean, lege beraren 65.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, aipatu argitalpenaren biharamunetik kontatzen hasita.

Jendeak, oro har, horren berri izan dezan argitaratzen da.

Durana, 2025eko apirilaren 30a

Alkatea

M^a. BLANCA ANTÉPARA URIBE